

ITELAZPI SA MERKATARITZA-SOZIETATE ANONIMOAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA

IZENA, EGOITZA, XEDEA, IRAUPENA ETA KAPITALA

1. artikulua.- Osaera, izena eta erregimen juridikoa

1.- "ITELAZPI SA" izenarekin ("Sozietatea") eratu da estatutu hauetan ezarritakoaren menpean egongo den sozietate publikoa. Estatutuetan jasota ez dauden alderdiak uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapitaleko Sozietateen Legearen testu bateginean ezarritakoaren menpean egongo dira, baita aplikagarriak zaizkien gainerako legezko xedapenen menpean ere.

2.- Sozietatea pertsona bakarreko sozietate anonimo gisa eratu da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa da sozietateko akziodun bakarra. Sozietatearen kapital osoak du izaera publikoa.

3.- ITELAZPI SA Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta azaroaren 11ko Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 7.4 artikuluan eta hurrengoetan definituta dauden sektore publikoko erakundeen berezko bitarteko pertsonalizatua da, Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duen Sektore Publiko Kontratuen Legearen (9/2017 Legea, azaroaren 8koa) 32.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

ESTATUTOS DE LA SOCIEDAD MERCANTIL ANÓNIMA ITELAZPI, S. A.

TÍTULO I

DENOMINACIÓN, DOMICILIO, OBJETO, DURACIÓN Y CAPITAL

Artículo 1.- Constitución, denominación y régimen jurídico

1.- Con la denominación de "ITELAZPI, S. A." (la "Sociedad") se constituye una Sociedad Pública que se regirá por los presentes estatutos y, en cuanto no esté previsto en ellos, por el Texto Refundido de Ley de Sociedades de Capital, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, y por las demás disposiciones legales que le sean de aplicación.

2.- La Sociedad se constituye como sociedad anónima de carácter unipersonal cuyo único accionista es la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. La totalidad del capital de la Sociedad es de titularidad pública.

3.- ITELAZPI, S.A. tiene, a efecto de lo dispuesto en el artículo 32.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, la condición de medio propio personificado de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de las demás entidades integrantes del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi definidas en el artículo 7.4 y siguientes del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.



Hori dela eta, lanak, zerbitzuak eta bere xede sozialarekin zerikusia duten bestelako jarduketak egiteko eskatu ahal izango diote sozietateari Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailek eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek, betiere horretarako administrazio-ahalmenak behar ez badira.

Gauzak horrela, sozietatea derrigortuta egongo da lan horiek enkargua egiten dion sailak edo erakundeak ezarritako jarraibideen arabera egitera. Lan horiek enkarguetan definituko dira, eta xede horietarako finkatutako tarifei jarraikiz baloratu.

Enkargu horien erregimen juridiko-administratiboak izaera instrumentala izango du, eta ez kontratu bidezkoa. Sozietateak ezinbestean egin beharko ditu enkarguok, eta sozietatea atxikita dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren saileko arau organikoek agindutako organoak ezartzen duen nahikotasun ekonomiko-finantzarioaren irizpideari jarraikiz ezarritako tarifen arabera ordainduko dira. Sozietatea zuzenbide pribatuaren menpean egongo da, baina horrek ez dio kalterik egiten sozietateak egiten duen jardueratik aplikagarria zaien legeria publikoa ere aplikatzeari, bereziki telekomunikazioen eta sektore publikoko kontratuen legeko araudia.

Berezko bitarteko pertsonalizatua denez, ITELAZPI SAK ezingo du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak deitutako lizitazioetan parte hartu, haren bitarteko delako, ezta enkarguak egin diezazkioketen botere adjudikatzailerek egindako lizitazioetan ere. Dena den, horrek ez dio kalterik egingo dagokion lizitazioa lizitatzailerik aurkezten ez bada, lizitazioaren xede den prestazioa exekutatzeko enkargua sozietateari egiteko aukerari.

Como consecuencia de ello, los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma y las demás entidades integrantes del sector público de la Comunidad Autónoma podrán encargar a la Sociedad la realización de trabajos, servicios y cualesquiera actuaciones relacionadas con su objeto social, siempre que no supongan el ejercicio de potestades administrativas.

La Sociedad vendrá obligada a realizar, de acuerdo con las instrucciones fijadas unilateralmente por el Departamento o entidad que realiza el encargo, los trabajos que le sean encargados. Dichos trabajos estarán definidos en encargos valorados de acuerdo con las tarifas fijadas al efecto.

El régimen jurídico administrativo de los mencionados encargos se define por su naturaleza instrumental y no contractual. Serán de ejecución obligatoria para la Sociedad y se retribuirán por referencia a tarifas fijadas con criterio de suficiencia económico-financiera por el órgano que señalen las normas orgánicas del Departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma al que se encuentra adscrita la Sociedad. La Sociedad actúa sometida al Derecho Privado, sin perjuicio de la legislación de carácter público que por razón de la materia propia de su actividad le resulte de aplicación, en particular la normativa en materia de telecomunicaciones y de contratos del sector público.

Como consecuencia de su condición de medio propio personificado, ITELAZPI, S.A. no podrá participar en licitaciones públicas convocadas por la Administración General de la Comunidad Autónoma, de quien es medio propio personificado, o por los demás poderes adjudicadores de quienes pueda recibir encargos, sin perjuicio de que, cuando no concurra ningún licitador, pueda encargársele la ejecución de la prestación objeto de las mismas.



2. artikulua.- Xedea

1.- Telekomunikazio-sistemak eta -azpiegiturak kudeatzea, ustiatzea eta mantentzea, betiere irratiko eta telebistako seinaleak eraman eta zabaltzeko zerbitzuak, seinaleen transmisio- eta konmutazio-zerbitzuak eta telekomunikazioarekin lotutako beste edozein zerbitzu emateko.

2.- Irrati-maiztasunen espektroari buruzko azterlanak egitea eta arlo horretako aholkularitza eta plangintza teknikoko zerbitzuak ematea.

3.- Xede horretatik kanpo geratzen dira, indarreko legerian ezarritakoari jarraikiz, sozietateak ez duen edozein administrazio-baimen behar duten jarduerak.

4.- Sozietatearen xede diren jarduerak zeharka ere gauzatu daitezke, baita zuzenbideak onartutako beste edozein modutan ere, eta, bereziki, xede berdinak edo antzekoak dituzten sozietateetako akzioen edo partaidetzen titulartasunaren bidez.

3. artikulua.- Iraupena eta sozietatearen jardueri hasiera ematea

Sozietateak iraupen mugagabea izango du, eta eratzen den egunean bertan hasiko da jarduten.

4. artikulua.- Egoitza soziala

Sozietatearen egoitza soziala Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoko 101. eraikinean dago, Zamudion (Bizkaia).

Administrazioko organoari dagokio egoitza soziala lekualdatzea eta enpresa garatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren sukurtsalak, agentziak edo ordezkariak eratzea, desegitea eta lekualdatzea, hala estatuan nola atzerrian.

Artículo 2.- Objeto

1.- La gestión, implantación, explotación y mantenimiento de sistemas e infraestructuras de telecomunicaciones, con el objetivo de prestar servicios de transporte y difusión de señales de radio y televisión, radiocomunicación, video-comunicación, transmisión y conmutación de señales y cualquier otro servicio de telecomunicación.

2.- La realización de estudios y prestación de servicios de asesoramiento y planificación técnica en materia de espectro radioeléctrico.

3.- Quedan excluidas del objeto social aquellas actividades para cuyo ejercicio la ley exija cualquier clase de autorización administrativa de la que no disponga la Sociedad.

4.- Las actividades integrantes del objeto social también pueden ser desarrolladas por la Sociedad de modo indirecto, en cualquiera de las formas admitidas en Derecho y, en particular, a través de la titularidad de acciones o participaciones en sociedades con objeto idéntico o análogo.

Artículo 3.- Duración y comienzo de actividades sociales

La sociedad se constituye por tiempo indefinido y dará comienzo a sus actividades el mismo día de su constitución.

Artículo 4.- Domicilio social

El domicilio social de la Sociedad queda fijado en el edificio 101 del Parque Científico y Tecnológico de Bizkaia, en Zamudio (Bizkaia).

Corresponde al órgano de Administración el traslado del domicilio social, así como la creación, supresión o traslado de sucursales, agencias o delegaciones que el desarrollo de la actividad de la empresa haga necesario o conveniente tanto dentro del territorio nacional como fuera de él.



5. artikulua.- Kapital soziala

Kapital soziala hogeita hamazazpi milioi lauhun eta hirurogeita hamahiru mila eurokoa da (37.473.000 euro), eta seiehun eta hogeita lau mila bostehun eta berrogeita hamar (624.550) akzio arruntetan banatuta dago. Horietako bakoitzak hirurogei euroko (60 euro) balio nominala du, eta korrelatiboki daude zenbakituta batetik (1) seiehun eta hogeita lau mila bostehun eta berrogeita hamarrera bitartean (624.550), biak barne. Guztiak daude harpidetuta eta ordainduta.

6. artikulua.- Akzioak

Akzioak titulu izendunek ordezkaturiko dituzte, eta sozietatearen zigilua eramango dute. Sinpleak edo anizkoitzak izango dira, eta, gainera, Kapitaleko Sozietateen Legearen 114. artikuluan zehaztutako nahitaezko aipamenak ere izango dituzte.

Sozietateak ezinbestean eduki beharko du akzio izendunen liburu-erregistro bat. Bertan egingo dira Kapitaleko Sozietateen Legearen 116. artikuluan jasotzen diren nahitaezko oharra.

Edonola ere, sozietateko akziodun guztiek dute eskubidea akzio izendun horien liburu-erregistroa egoitza sozialean ikusteko.

II. TITULUA SOZIEATEAREN ORGANOAK

7. artikulua.- Organo sozialak.

Honako hauek kudeatuko dute sozietatea:

Batzar Nagusia.

Administrazio Kontseilua

Artículo 5.- Capital Social

El Capital Social se fija en la cantidad de treinta y siete millones cuatrocientos setenta y tres mil (37.473.000,-) euros y está representado por seiscientos veinticuatro mil quinientas cincuenta (624.550) acciones ordinarias nominativas de sesenta (60,-) euros de valor nominal cada una de ellas, numeradas correlativamente de la uno (1) a la seiscientos veinticuatro mil quinientas cincuenta (624.550) ambas inclusive, íntegramente suscritas y desembolsadas.

Artículo 6.- Acciones

Las acciones estarán representadas mediante títulos nominativos y estampillados con el sello de la Sociedad, que podrán ser simples o múltiples, conteniendo además el resto de las menciones obligatorias señaladas en el artículo 114 de la Ley de Sociedades de Capital

La Sociedad llevará obligatoriamente un libro-registro de acciones nominativas, en el que se irán practicando las anotaciones que se obligan en el artículo 116 de la Ley de Sociedades de Capital.

En todo caso, cualquier accionista de la Sociedad tiene derecho a examinar el libro-registro de acciones nominativas en el domicilio social.

TÍTULO II ORGANOS DE LA SOCIEDAD

Artículo 7.- Órganos sociales.

La Sociedad se regirá por:

La Junta General.

El Consejo de Administración



Ezin izango dute sozietateko administratzaile izan, ezta sozietatean kargurik eduki ere, Kapitaleko Sozietateen Legeko 213. artikuluan, Kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean edo haiekin bat datozen estatuko eta/edo autonomia-erkidegoko indarreko legeetan ezarritakoaren arabera, bateraezintasunak edo debekuak dauzkaten pertsonak.

LEHEN ATALA AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA

8. artikulua.- Erabakien izaera eta derrigortasuna

Legean ezarritakoari jarraikiz deitutako eta eraturako Akziodunen Batzar Nagusia da sozietatearen organo subiranoa, eta baliozko erabakiak derrigorrezkoak izango dira akziodun guztientzat, barne hartuta disidenteak eta bertaratu ez direnak, legeak aitortzen dizkien eskubide eta ekintzei kalterik egin gabe.

9. artikulua.- Batzar motak

Akziodunen Batzar Nagusia ohikoa eta ezohikoa izan daiteke.

Ohiko batzarra da, aurretiaz deituta, ekitaldi bakoitzeko lehen sei hilabeteetan egin behar dena, aurreko ekitaldian egin den sozietatearen kudeaketa baloratzeko; eta, hala badagokio, aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko eta emaitzaren aplikazioa ebazteko.

Gainerako batzarrak ezohikoak izango dira.

Ohiko Batzar Nagusirako deia eginda ere, aukera egongo da deialdian sartu den eta batzarraren eskumenekoa den edozein gairi buruz eztabaidatu eta erabakiak hartzeko.

No podrán ser administradores o administradoras, ni ocupar cargos en la Sociedad, las personas que estén incursas en causa de incompatibilidad o prohibición alguna, incluidas las previstas en el artículo 213 de la Ley de Sociedades de Capital, la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos, y demás legislación estatal y/o autonómica concordante y vigente.

SECCIÓN PRIMERA LA JUNTA GENERAL DE ACCIONISTAS

Artículo 8.- Naturaleza y obligatoriedad de los acuerdos

La Junta General de Accionistas, legalmente convocada y constituida, es el órgano soberano de la Sociedad, y sus acuerdos válidamente adoptados, serán obligatorios para todos los y las accionistas, incluso los y las disidentes o ausentes, sin perjuicio de los derechos y acciones que la ley les reconoce.

Artículo 9.- Clases de Juntas

La Junta General de accionistas podrá ser ordinaria o extraordinaria.

Es Junta ordinaria la que, previa convocatoria, debe reunirse necesariamente dentro de los seis primeros meses de cada ejercicio para censurar la gestión social, aprobar, en su caso, las cuentas del ejercicio anterior y resolver sobre la aplicación del resultado.

Todas las demás Juntas tendrán el carácter de extraordinarias.

No obstante, la Junta General, aunque haya sido convocada con el carácter de ordinaria, podrá también deliberar y decidir sobre cualquier asunto de su competencia que haya sido incluido en la convocatoria.



10. artikulua.- Batzar Nagusiaren funtzionamendua

Kapitaleko Sozietateen Legean eta Merkataritza Erregistroko Erregelamenduan ezarritakoa aplikatuko da batzarrak deitzeko; tokia erabakitzeko; informaziorako, ordezkaritza eta bertaratzeko eskubidea erabiltzeko; eztabaida bideratzeko eta erabakiak hartzeko.

Presidente eta idazkari funtzioak Batzar Nagusiak berak izendatzen dituen pertsona fisikoek egingo dituzte. Edozein kasutan, pertsona horiek bilerara akziodun gisa edo sozietateko akziodun diren erakunde juridikoetako ordezkari gisa bertaratutakoen artean aukeratu beharko dira.

BIGARREN ATALA ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

11. artikulua.- Izaera eta funtzioak

Administrazio Kontseilua da sozietatea luze-zabal kudeatu eta epaiketetan eta epaiketetatik kanpo ordezkatu behar duen kide anitzeko organoa. Horretarako, ez du inongo mugarik izango, Batzar Nagusiak hartutako erabakietan eta, legeak edo estatutuek hala ezartzen dutelako, sozietateari dagozkion ahalmenetan jasotakoetatik haratago.

12. artikulua.- Osaera, izendapena, karguak eta iraupena.

Administrazio Kontseiluan gutxienez hiru (3) administratzaile egongo dira, eta, gehienez ere, hamabi (12). Kontseiluko kide izendatua izateko, ez da ezinbestean akzioduna izan behar, baina izan daiteke. Pertsona fisiko nahiz juridikoak izenda daitezke kontseiluko kide, baina pertsona juridikoek beti beren izenean jardungo duen pertsona fisiko bat izendatu beharko dute.

Artículo 10.- Funcionamiento de la Junta General

La convocatoria de las Juntas, así como el lugar de celebración, el derecho de información, representación y asistencia, la deliberación y la adopción de acuerdos se efectuarán conforme a lo establecido en la Ley de Sociedades de Capital y en el Reglamento del Registro Mercantil

Las funciones de Presidente o Presidenta y Secretario o Secretaria recaerán en las personas físicas que la propia Junta General designe en cada caso de entre quienes asistan a la reunión en calidad de accionistas o representantes de entidades jurídicas que tengan la condición de accionistas de la Sociedad.

SECCIÓN SEGUNDA EL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN

Artículo 11.- Naturaleza y funciones

El Consejo de Administración es el órgano colegiado de la Sociedad al que corresponde la función gestora y representativa de la Sociedad en la más amplia medida, en juicio y fuera de él, sin más limitaciones que las contenidas en los acuerdos de la Junta General y las facultades que, por imperativo legal, correspondan a ésta o estatutariamente queden reservadas a la misma.

Artículo 12.- Composición, designación, cargos y duración.

El Consejo de Administración estará integrado por un mínimo de tres (3) administradores o administradoras y un máximo de doce (12). Para ser nombrado Consejero o Consejera no se requerirá la calidad de accionista, pudiendo serlo, tanto las persona físicas como las jurídicas, si bien estas últimas deberán designar a una persona física para que actúe con carácter permanente en su nombre.



Batzar Nagusiari dagokio Administrazio Kontseiluaren kide kopurua zehaztea, baita kide horiek aukeratzea, izendatzea eta kargugabetzea ere, edozein unetan. Halaber, hari dagokio kontseiluko kideen ordainsariak zehaztea, halakorik badago, baita Administrazio Kontseiluko presidente eta presidenteorde karguak izendatzea eta aldatzea ere.

Administratzaileen izendapenak onartzen diren unean bertan sartuko dira indarrean, eta Merkataritza Erregistroan inskribatzeko aurkeztu beharko dira hamar eguneko epean. Bertan, izendatuen izen-abizenak, helbidea eta nazionalitatea adieraziko dira.

Kontseilariak gehienez ere sei (6) urtez egongo dira karguan, baina nahi beste aldiz berraukera daitezke gehienez ere iraupen hori izango duten hainbat alditarako.

13. artikulua.- Bileretako deia egitea.

Administrazio Kontseilua presidentek deituko du. Dena den, gutxienez Administrazio Kontseiluko kideen herenak ere egin ahalko du bilera sozietatearen egoitza sozialean egiteko deia, horretarako eguneko aztergaien zerrenda aurkeztuta, baldin eta presidenteari bilera deitzeko eskaria egin eta gero, deia egin ez badu justifikaziorik gabe eta hilabeteko epean.

Presidenteak deialdia premiazkoa dela adierazten ez badu, bilerarako deia berrogeita zortzi ordu lehenago egingo da, gutxienez, kontseiluko kide bakoitzari zuzendutako idatzi baten bidez. Bertan adierazi beharko da bilerako aztergaien zerrenda.

Es competencia de la Junta General la determinación del número de componentes del Consejo de Administración, así como su elección, nombramiento y revocación, en cualquier momento, al igual que la determinación de sus retribuciones, si las hubiere. Igualmente corresponde a la Junta General la designación y modificación de los cargos de Presidente o Presidenta y Vicepresidente o Vicepresidenta del Consejo de Administración

El nombramiento de los administradores o administradoras surtirá efecto desde su aceptación y deberá ser presentado para su inscripción en el Registro Mercantil dentro de los 10 días siguientes a la fecha de aquélla, haciéndose constar los nombres, apellidos, domicilio y nacionalidad de las y los mismos.

Los Consejeros y Consejeras ejercerán su cargo durante el plazo máximo de seis (6) años, pudiendo ser indefinidamente reelegidos y reelegidas por períodos de igual duración máxima.

Artículo 13.- Convocatoria de las reuniones.

El Consejo de Administración se reunirá a convocatoria de su Presidente o Presidenta. Los Consejeros o Consejeras que constituyan al menos un tercio de los y las componentes del Consejo de Administración podrán convocarlo, indicando el orden del día, para su celebración en la localidad donde radique el domicilio social si, previa petición al Presidente o Presidenta éste o ésta, sin causa justificada, no lo hubiera convocado en el plazo de un mes.

La convocatoria, salvo en casos de urgencia apreciada por su Presidente o Presidenta, se cursará al menos con cuarenta y ocho horas de antelación, mediante escrito dirigido personalmente a cada Consejero o Consejera, fijando el orden de los asuntos a tratar.



Ez da beharrezkoa izango Administrazio Kontseilurako aurretiazko deialdia egitea, baldin eta kontseilua erabakiak hartzeko moduan eratu bada eta kontseiluko kide guztiak elkartuta, bilera egitea erabakitzen badute.

14. artikulua.- Bilerak egitea eta erabakiak hartzea.

Administrazio Kontseilua behar bezala eratuta egongo da bilerara kideen gehiengoa bertaratzen bada, pertsonalki edo ordezkari bidez.

Kontseiluko kide guztiak dute aukera beste kontseilari bat edo batzuk ordezkatzeko, bertaratu ezin direlako edo une horretan lanerako ezinduak daudelako, baldin eta bilera bakoitzean horretarako ahalmena ematen bazaie idatziz.

Administrazio Kontseiluko presidentek bileretara kontseiluko kide ez diren pertsonak bertaratzea baimendu ahal izango du, betiere aztergaien zerrendako puntu zehatz baten berri emateko bada. Gonbidatuek hitz egin ahal izango dute, baina ez dute botorako eskubiderik izango.

Bileretan Administrazio Kontseiluko presidentea izango da burua, eta berak bideratuko ditu. Presidentearen kargua hutsik badago edo presidentea kanpoan, gaixorik edo legezko edozein eragozpenen menpean badago, presidenteordeak hartuko du bere tokia, edo, bestela, kontseiluko kiderik nagusienak.

Administrazio Kontseiluko idazkariaren ardura izango da deialdiak izapidetzea eta saioak prestatzea. Horrez gain, saioetako akta egin eta sinatuko du, presidentearen oniritziarekin, eta bera arduratuko da hartutako erabakien egiaztatzea ere modu horretan egiteaz.

No será necesaria la previa convocatoria del Consejo de Administración, entendiéndose válidamente constituido para la adopción de cualquier acuerdo si, hallándose presentes todos los Consejeros y Consejeras, decidiesen por unanimidad celebrar la reunión

Artículo 14.- Celebración de las reuniones y adopción de acuerdos.

El Consejo de Administración quedará válidamente constituido cuando concurren a la reunión, presentes o representados, la mayoría de todos sus componentes.

Todo Consejero o Consejera podrá asumir la representación de uno o más Consejeros o Consejeras, ausentes o imposibilitados, mediante apoderamiento por escrito para cada reunión.

El Presidente o Presidenta del Consejo de Administración podrá autorizar la presencia en las reuniones de personas no Consejeras, con voz, pero sin voto, a efectos de informar de un punto concreto del orden del día

Presidirá y dirigirá las reuniones el Presidente o la Presidenta del Consejo de Administración y, en los casos de vacante, ausencia, enfermedad o impedimento legítimo del mismo o de la misma, el Vicepresidente o la Vicepresidenta o, en su defecto, el Consejero o Consejera de mayor edad.

El Secretario o la Secretaria del Consejo de Administración, a quien competirá la tramitación de las convocatorias y preparación de las sesiones, levantará acta de lo acaecido en las mismas y la suscribirá, con el visto bueno del Presidente o Presidenta, expidiendo en igual forma certificación de los acuerdos adoptados.



Idazkariaren funtzioak egingo ditu kontseiluko kiderik gazteenak, baldin eta idazkariaren kargua hutsik badago edo idazkaria kanpoan, gaixorik edo legezko edozein eragozpenen menpean badago.

Administrazio Kontseiluak parte-hartzaileen gehiengo absolutuaren bidez hartuko ditu erabakiak, eta presidenteak edukiko du, berdintasuna egonez gero, kalitatezko botoa.

Erabakiak baliozkoak izan daitezzen, Administrazio Kontseiluko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da, gutxienez, erabakiak Kapitaleko Sozietateen Legearen testu bateginaren 249.2 artikuluan jasotako gaiei buruzkoak direnean.

Sozietateak bileretako akten liburu bat izango du, eta Administrazio Kontseiluko idazkaria izango da berau gordetzeko eta zaintzeko arduraduna.

15. artikulua.- Administrazio Kontseiluaren eskumenak

Administrazio Kontseiluari dagokio sozietatearen organo ordezkaria izatea, kide anitzeko organoa den aldetik, hala epaiketetan nola epaiketetatik kanpo. Dena den, ahalmen orokor edo partikularrak eman diezazkioke edozein pertsonari. Ahalmen horien iraupena mugagabea ez bada, dagozkion mandatu-eskrituretan adieraziko dira iraupena eta irismena. Edonola ere, aintzat hartu beharko da ezin izango direla Batzar Nagusiari legez esleitutako eskumenak eta Administrazio Kontseiluari legez, estatutu bidez edo Batzar Nagusiaren erabaki bidez emandako eskumenak eskuordetu, salbu eta Batzar Nagusiak azken horretarako baimena ematen badu espresuki.

16. artikulua.- Administrazio Kontseiluaren ahalmenak eskuordetzea.

Bere funtzioak hobeto gauzatzeko, honako hauek egin ahal izango ditu Administrazio Kontseiluak:

El Secretario o Secretaria será sustituido o sustituida en sus funciones por el Consejero o Consejera de menor edad, en los casos de vacante, ausencia, enfermedad o impedimento legítimo.

El Consejo de Administración tomará sus acuerdos por mayoría absoluta de las personas componentes concurrentes, ostentando el Presidente o Presidenta, en caso de empate, voto de calidad.

La validez de los acuerdos requerirá el voto favorable de dos tercios de las personas integrantes del consejo de administración, cuando se trate sobre cuestiones previstas en el artículo 249.2º del Texto Refundido de la Ley de Sociedades de Capital.

La Sociedad llevará un Libro de Actas de las reuniones, cuya custodia y conservación corresponderá al Secretario o Secretaria del Consejo de Administración.

Artículo 15.- Atribuciones del Consejo de Administración

La representación orgánica de la Sociedad corresponde al Consejo de Administración, como órgano colegiado, tanto en juicio como fuera de él, sin perjuicio de que, por otra parte, confiera apoderamientos, generales o particulares, a cualquier persona. En las respectivas escrituras de mandato se determinará la duración del mismo, si no fuera indefinida, y el alcance de las facultades conferidas, teniendo en cuenta que en ningún caso deberán ser objeto de delegación aquellas competencias legalmente atribuidas a la Junta General, ni las facultades que legal y estatutariamente o mediante acuerdo de la Junta General se confieran específicamente al Consejo de Administración, salvo que en este último supuesto fuere expresamente autorizado por la Junta General.

Artículo 16.- Delegación de facultades del Consejo de Administración.

El Consejo de Administración, para la mejor realización de sus funciones, podrá:



Kontseiluaren barruan batzorde exekutiboak sortzea, eta haiei eskuordetzea, aldi baterako edo mugarik gabe, kontseiluari berari dagozkion eskumen batzuk edo guztiak, betiere legez edo estatutu bidez eskuordetu ezin daitezkeen eskumenak ez badira. Batzorde horiek eratzean ezarriko dira beren xedeak eta, hala badagokio, beren funtzionamendu-arauak ere.

Aholku-batzorde bat edo gehiago eratzea, eta batzorde horiek osatzen dituzten pertsona guztiek ez dute nahitaez Sozietateko Kontseilari izan behar. Batzorde horiek eratzean, beren xedeak eta, hala badagokio, funtzionamendu-arauak ezarriko dira.

Aurreko batzordeetan, bai batzorde exekutiboetan bai aholku-batzordeetan, sozietatearen Administrazio Kontseiluko lehendakaria edo hark eskuordetutako Kontseilaria izango da buru.

Aldi baterako edo mugarik gabe eskuordetzea kontseilari delegatuei funtzio bat edo batzuk.

Ahalordetze bereziak ematea kasu zehatzetan, pertsona kopuru mugaturik gabe.

17. artikulua- Kontseiluko presidentearen ahalmenak

Administrazio Kontseiluko presidenteari dagozkio, estatutu hauetako beste artikuluko batzuetan esleitutakoez gain, honako ahalmen hauek:

Lehenengoa.- Sozietatearen ordezkartza iraunkorra.

Bigarrena.- Sozietatearen zerbitzu guztiak ikuskatzea eta sozietatearen jardueraren bilakaera zaintzea.

Hirugarrena.- Estatutuak eta Batzar Nagusiak, Administrazio Kontseiluak edo beren batzordeek hartutako erabakiak betetzen direla egiaztatzea.

Constituir, de su seno, una o más Comisiones ejecutivas, con delegación permanente o temporal de todas o algunas de sus facultades que no sean legal o estatutariamente indelegables, fijando a su constitución, su cometido y, en su caso, las normas para su funcionamiento.

Constituir una o más Comisiones consultivas, sin que necesariamente todas las personas que las compongan hayan de ser Consejeros o Consejeras de la Sociedad, fijando a su constitución su cometido y, en su caso, las normas de su funcionamiento.

Las Comisiones anteriores, tanto las ejecutivas como las consultivas, serán presididas por el Presidente o Presidenta del Consejo de Administración de la Sociedad o Consejera o Consejero en quien él o ella misma delegue.

Delegar, con carácter permanente o temporal, determinadas funciones en una o varias Consejeras o Consejeros delegados.

Conferir apoderamientos especiales para casos concretos sin limitación de personas

Artículo 17.- Facultades de Presidente o Presidenta del Consejo

Corresponden al Presidente o Presidenta del Consejo de Administración, además de las atribuidas en otros artículos de los presentes Estatutos, las siguientes facultades:

Primera: la representación permanente de la Sociedad.

Segunda: la inspección de todos los servicios de la Sociedad y la vigilancia del desarrollo de la actividad social.

Tercera: velar por el cumplimiento de los Estatutos y de los acuerdos tomados por la Junta General, el Consejo de Administración o sus Comisiones.



Laugarrena.- Administrazio Kontseiluak eskuordetzen dizkion ahalmenak.

18. artikulua- Presidenteordea.

Presidenteordeak berez presidenteari dagozkion eta presidenteari Administrazio Kontseiluak eskuordetu dizkion eskumenak izango ditu presidentearen kargua hutsik badago edo hura kanpoan badago.

19. artikulua- Zuzendari nagusia.

Administrazio Kontseiluak zuzendari nagusi bat izendatu ahalko du.

Zuzendari nagusiaren ahalmenak Administrazio Kontseiluak modu baliozkoan eta espresuki ematen dizkionak izango dira. Edonola ere, Administrazio Kontseiluak edozein unetan baliogabetu edo aldatu ditzake eskumen horiek.

Zuzendari nagusiaren agintaldiaren iraupena mugagabea izango da, eta Administrazio Kontseiluak izendapena baliogabetzen duenean amaituko da.

III. TITULUA

FINANTZA-ERREGIMENA

20. artikulua.- Sozietatearen ekitaldiaren iraupena.

Sozietatearen ekitaldia urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da urtero, lehenengo urtean izan ezik; izan ere, urte horretan, sozietatea eratzen den unean hasiko da ekitaldia.

21. artikulua.- Urteko kontuak egitea.

Ekitaldi bakoitzaren amaieran, administrazio-organoak urteko kontuak egingo ditu, ekitaldia amaitu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean. Horrez gain, kudeaketa-txostena ere egingo du, halakorik eskatu badaiteke, baita emaitzaren aplikazio-proposamena ere. Batzar Nagusiak onartu beharko ditu horiek guztiak.

Cuarta: las facultades que en él o ella delegue el Consejo de Administración.

Artículo 18.- El Vicepresidente o Vicepresidenta.

El Vicepresidente o Vicepresidenta actuará en caso de vacante o ausencia del Presidente o Presidenta con las facultades de éste o ésta y las que en aquél o aquella pudiera delegar el Consejo de Administración.

Artículo 19.- El Director o Directora General.

El Consejo de Administración, podrá designar un Director o Directora General.

Las facultades del Director o Directora General serán las que en forma expresa sean atribuidas válidamente por el Consejo de Administración, quien podrá en cualquier momento revocarlas o modificarlas.

La duración del mandato del Director o Directora General será indefinida, sujeta a revocación de nombramiento por el Consejo de Administración.

TITULO III

REGIMEN FINANCIERO

Artículo 20.- Duración del ejercicio social.

El ejercicio social se iniciará el 1 de enero y finalizará el 31 de diciembre de cada año, excepto el primer año en que comenzará el día de la constitución de la sociedad.

Artículo 21.- Formulación de las cuentas anuales

Al final de cada ejercicio y en un plazo máximo de tres meses desde el cierre del mismo, el órgano de administración formulará las cuentas anuales, el informe de gestión, si fuera exigible, y la propuesta de aplicación del resultado, que se someterán a la aprobación de la Junta General.



IV. TITULUA

SOZIEATEA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA.

22. artikulua.- Sozietatea desagitea

Sozietatea Kapitaleko Sozietateen Legean aurreikusitako arrazoiengatik eta bertan adierazitako ondoreekin desagingo da, eta, hori gertatzen denean, Batzar Nagusiari dagokio desagite-erabakian likidatzaileak izendatzea. Likidatzaile kopurua beti izango da bakoitia.

23. artikulua.- Administrazio Kontseiluaren ordezkariak amaitzea

Sozietatea desagitea erabaki eta "desegiten" ari dela deklaratu denean amaituko da Administrazio Kontseiluak kontratu berriak egin eta betebeharrak hartzeko dituen ordezkariak eta funtzioak. Zehazki, une horretan hartuko dituzte likidatzaileek Kapitaleko Sozietateen Legean ezarritako funtzioak.

Edonola ere, halakorik eskatzen bada, administratzaile ohiek beren burua aurkeztu beharko dute likidazio-operazioak egiteko.

24. artikulua.- Sozietatearen ondasunak banatzea

Sozietatearen ondasunak Akziodunen Batzar Nagusiak xede horretarako ezarritako arauen jarraikiz banatuko dira.

TITULO IV

DISOLUCIÓN Y LIQUIDACIÓN DE LA SOCIEDAD.

Artículo 22.- Disolución de la sociedad

La Sociedad se disolverá por las causas y con los efectos previstos en la Ley de Sociedades de Capital, correspondiendo a la Junta General la designación de personas liquidadoras en el acuerdo de disolución, cuyo número será siempre impar.

Artículo 23.- Cese de representación del Consejo de Administración

Desde que se acuerde la disolución de la Sociedad y se declare "en disolución", cesará en su representación y funciones el Consejo de Administración para hacer nuevos contratos y contraer nuevas obligaciones, asumiendo las personas liquidadoras las funciones establecidas en la Ley de Sociedades de Capital.

Esto, no obstante, los antiguos administradores o administradoras, si fuesen requeridos, deberán prestar su concurso para la práctica de las operaciones de liquidación.

Artículo 24.- División del haber social

La división del haber social se practicará con arreglo a las normas que al efecto fije la Junta General de Accionistas.